



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko abuztuaren 9a

96. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/PES-00286. Galdera, Nafarroako Ubidearen proiektuaren azterlan ekonomiko-finantzariorako tresnari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- 11-24/PES-00287. Galdera, Caparrosoko Kristoren Elizari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- 11-24/PES-00288. Galdera, Luzaideko ibiltokiaren eraikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-24/PES-00289. Galdera, funts publikoak kontzertuak finantzatu edo diruz laguntzeko erabiltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-24/PES-00290. Galdera, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak prebentzioko lurralde-ordezkariek sartzeari dagokionez proposatutako irizpideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Severiano Txoperena Matxikote jaunak foru parlamentari izaerari uko egitea (7. or.).
- Oihan Mendo Goñi jauna EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioan sartzea (7. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionario eta kontratudunek 2024an jasoko dituzten ordainsariak eguneratzea (8. or.).
- Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek 2024. urtean jasoko dituzten ordainsariak eguneratzea (8. or.).
- 25/24 Ebazpena, uztailaren 29koa, Nafarroako Arartekoak emana, urtebeteko prestakuntza-beka baten deialdirako oinarriak onesten dituen, Zuzenbideko gradua dutenentzat, Nafarroako Arartekoan aritzeko (9. or.).

F saila:
GALDERAK

11-24/PES-00286. Galdera, Nafarroako Ubidearen proiektuaren azterlan ekonomiko-finantzariako tresnari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak Nafarroako Ubidearen proiektuaren azterlan ekonomiko-finantzariako tresnari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 14ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera

egin du, jakite aldera ea “noizko egonen den prest Riegos de Navarrak Price-Waterhouse-Coopers-i (PwC) Nafarroako Ubidearen proiektuaren azterketa ekonomiko-finantzarioa egiteko enkargatu zion tresna”. Hona hemen Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Oraindik ere lanean ari gara tresna horren inguruan, eta espero dugu datozen asteotan egonen dela bukatuta.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko uztailaren 2an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-24/PES-00287. Galdera, Caparrosoko Kristoren Elizari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak Caparrosoko Kristoren Elizari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 14ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Trigo Oubiña jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, jakite aldera Nafarroako Gobernuak zer plan darabilen gogoan Caparrosoko Kristoren Elizaren egoerari aurre egiteko (11-24/PES-00287). Horren harira, Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismo kontseilariak honako informazio ematen du:

Ondare Historikoaren Zerbitzuak honako hau aurreikusi du:

1. Higiezinaren plano-jasotze egokia edukitzea; higiezina ondasun inbentariatu deklaratu zen apirilaren 5eko 90/2018 Ebazpenaren bidez, zeina 2018ko maiatzaren 21eko 96. BONEan argitaratu baitzen.

2. Aurretiazko azterlanak egitea informazio espezializatua eskuratzeko, higiezinaren egituraren kontserbazio egoerari eta dituen mugei buruzkoa.

3. Teknikari espezialisten lankidetzak eskatzea, higiezinaren egoera eta egin daitezkeen jarduketak azter ditzaten, dagozkion segurtasun neurriak hartuta, gangak desmuntatzeko, egitura sendotzeko eta balorazioa egiteko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 28an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

11-24/PES-00288. Galdera, Luzaideko ibiltokiaren eraikuntzari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak Luzaideko ibiltokiaren eraikuntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 14ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Trigo Oubiña jaunak aurkezturiko idatzizko galdera dela-eta (11-24 PES-00288), Luzaide aldean ibiltoki bat eraikitzeari buruzkoa, erromesek arriskurik gabe egin ahal izan dezaten zati hori, honako honen berri ematen du:

Luzaideko Udalak interesa agertu du Donejakue bidearen trazadura hobetzeko, arrisku handikoa delako. Txosten batzuk ditu, Bidea zedarrizten duen 290/1988 Foru Dekretua aldatzeko, errepedeko bi kilometro ekidinen dituen trazadura

berri bat egokitzeko asmoarekin. Jarduketa horiek 500.000 euroraino iristen dira.

Txosten eta proiektu horiek aztertu ondoren, Turismo Zuzendaritza Nagusiak Luzaideko Udalarekin adostu du bere gain hartzea proiektu teknikoa, jarduketa egingarrienaren ingurukoa: errepedearen paraleloa den bide bat egitea, bi zatitan, bakoitza bi kilometro ingurukoa, errepide-hesiaz bestaldeko pasabide jarrai batekin, zurez edertua, Nafarroan identifikatu diren beste zati arriskutsu batzuetarako proiektatu den moduan, Turismo Zuzendaritza Nagusiak Nasuvinsari enkargatutakoa azterlan baten bidez.

Aldi berean hainbat kontsulta egin zaizkie Herri Lanei eta Ingurumenari, jarduketa horren egokitasuna egiaztatze aldera.

Lan horiek guztiak abian dira eta emaitzak, jarduketaren, finantzaketaren zein kronogramaren aldetik, datozen hilabeteotan izanen dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko ekainaren 28an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

11-24/PES-00289. Galdera, funts publikoak kontzertuak finantzatu edo diruz laguntzeko erabiltzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak funts publikoak kontzertuak finantzatu edo diruz laguntzeko erabiltzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 14ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismo kontseilariak, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Trigo Oubiña jaunak aurkezturiko idatzizko galdera dela-eta (11-24 PES-00289), zeinean itauntzen baitu Marc Anthonyren eta Luis Miguelen kontzertuen finantzaketaz, honako honen berri ematen du:

1. Vianako Printzea Erakundea-Kulturako zuzendari nagusiaren ekainaren 6ko 142/2024 Ebazpenean honako hau jasotzen da:

a. NICDO SLren 2024ko kultur jarduerak finantzatzeko kontratu-programa onestea.

b. NICDO SLren alde (IFZ: B31931959) 1.700.000 euroko gastua baimentzea eta xedatzea, 2024ko gastu-aurrekontuko honako partida honen kargura: A20002 A2500 4400 334102, "NICDO. Musika-industria garatzea, Bertatik bertarako Musika, Navarra Music Commission eta Bira Nafarroan Barna"

2. Nafarroako Gobernuko Kultura Zuzendaritza Nagusiarekin formalizatutako kontratu-programa horren abaroan, NICDOk denbora darama berak kudeatzen dituen instalazioetan egiten diren ekitaldiak eta kontzertuak antolatzen.

3. 2024ko urtarrilaren 31n formalizatu zen Marc Anthonyren kontzertua egin –2024ko ekainaren 2an gauzatua–, ekoiztu eta sustatzeko kontratua.

Aipatu kontratuan NICDOren betebeharrak gisa jasotzen da 110.000 euroko ekarpena egitea artis-

taren ordainsaritarako, eta ekoizpen-gastuak bere gain hartzea 20.000 euroraino.

Funts horiek lehen aipatu kontratu-programatik datoz.

4. 2023ko urriaren 27an kontratua formalizatu zen Luis Miguelen kontzertua egin, ekoiztu eta sustatzeko. 2024ko uztailaren 3an izan zen kontzertua.

Aipatu kontratuan NICDOren betebeharrak gisa jasotzen da 120.000 euroko ekarpena egitea artistaren ordainsaritarako, eta ekoizpen-gastuak bere gain hartzea 40.000 euroraino.

Funts horiek lehen aipatu kontratu-programatik datoz.

5. Aipatutako enplegu moduko ekitaldi muntadunak egiteari esker, NICDOk 2024an Nafarroa Arenaren babesleztzatik 600.000tik gora euroko diru-sarrerak eskuratuko ditu. Gainera, bi kontzertu handi horiek, NICDOk bere egoitzetan antolatzen dituen gainerako ikuskizun eta jarduerekin batera, laguntzen dute inpaktu ekonomiko bat sortzen, zeina honakoa izan baitzen 2023an, esate baterako:

– 43,63 milioi euro zuzeneko gastuan.

– 11,17 milioi euro zerga-bilketan.

– 773 enplegu, zuzenekoak eta zeharkakoak.

6. Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan 14.1 artikuluan ohartarazten da ezen Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2023 Legeak, Espainiako Konstituzioaren 149.1.1, 149.1.13 eta 149.1.18 artikuluetan ezarritakoaren babesean onetsiak, informazio-eskurapenaren mugatzen hartzeko duela interes ekonomiko eta merkataritzakoei, sekretu profesionalari eta konfidentzialtasunaren bermeari kaltea dakarkien oro. Halatan, jakinarazten dizugu igorritako informazioa konfidentziala dela, eta ezin zaiela hirugarrenei helarazi.

Hori da jakinarazi ahal dudana, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2024ko uztailaren 16an

Kultura, Kirol eta Turismo kontseilaria:
Rebeca Esnaola Bermejo

11-24/PES-00290. Galdera, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak prebentzioko lurralde-ordezkariek sartzeari dagokionez proposatutako irizpideei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak prebentzioko lurralde-ordezkariek sartzeari dagokionez proposatutako irizpideei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 14ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak 11-24/PES-00290 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariaren erantzuna:

Zeintzuk dira eta zertan dautza Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Lan Osasunaren Zuzendariordetzaren hobekuntza-proposamenak?

Nafarroako Lan Osasunaren Kontseiluan lan osasunaren inguruko proposamenak lantzeko eta partekatzeko aukera dute eragile sozial eta ekonomikoek, baina horrekin batera 2024an egindako bileretan irizpideak partekatu ahal izan dira Ekonomia Sozialeko eta Laneko Zuzendaritza Nagusiaren, Osasuneko Zuzendaritza Nagusiaren eta NOPLOren aldetik garatutako neurri eta programa batzuen inguruan.

Horieta bat izan da prebentzioko lurralde-ordezkariekin deialdia; horren inguruan Ekonomia Sozialeko eta Laneko Zuzendaritza Nagusiak, Osasuneko Zuzendaritza Nagusiarekin eta NOPLOrekin duen lankidetzaren esparruan eta deialdia hobetzeko asmoarekin, lan-istripuen aurkako borroka eraginkorragoa izan dadin, proposamenak eskatzen ditu.

NOPLOren aldetik maiatzaren 15ean bidalitako proposamenak honako hauek dira:

“– Enpresa txikiagoetara bisitak egitea sustatzea. Aurreko deialdietan plantilla 50rainokoa zen,

azkenekoan 100eraino zabaldu zen (horrek dakar Nafarroan diren enpresetatik % 98 sartzen ahal direla). Proposatzen dugu 50era itzultzea, kontuan hartuta 50 baino gutxiagoko plantilla duten enpresa asko daudela. Eta gainera laneko arriskuen prebentziorako eta ordezkaritza sindikal gutxiago dute”.

“– Proposatzen dugu bisitatutako enpresetatik % 70 baino gehiago 25 baino gutxiagoko plantilla-koak izatea, eta % 50 6 baino gutxiagoko plantilla-koak izatea (puntuak eman)”.

“– Eta % 70 baino gehiagotan ardatza eta lehentasuna izatea EJSN-56 Tabernak eta jatetxeak eta EJSN-57 Txikikazko merkataritza izaera duten enpresak (30 puntu ematea)”.

Proposamen horiek dirulaguntza emateko irizpideetan sartzeko aurkezten dira, deialdi hori nor-gehiagok ebatzen delako.

Proposatutako neurriak 2024ko deialdian sartu dira edo sartuko dira?

Proposamenak Ekonomia Sozialeko eta Laneko Zuzendaritza Nagusian baloratu dira eta bat datoz aurretik aztertutako hobekuntzarako irizpideekin.

Enpresa txikiagoetara bisitak egitea sustatzea garrantzitsua da, Nafarroan ETEak (enpresa txiki eta ertainak) nahiz mikroETEak nagusi direlako eta horiek dira, hain zuzen, laneko arriskuen prebentziorako neurriak aplikatzeko baliabide gutxiago eta ordezkaritza sindikal gutxiago dutenak, bereziki 6 langile baino gutxiago dutenak, non araudiagatik ez dagoen hori izaterik. Azken irizpide hori 2024ko deialdian sartu dugu, honela:

a) Enpresetatik % 20, gutxienez, 6 langile baino gutxiagokoak izan beharko dira.

b) Enpresetatik % 75, gutxienez, 50 langile baino gutxiagokoak izan beharko dira.

Era berean, garrantzitsutzat jotzen dugu prebentzioaren arloko bisitak lehentasunez egitea lan-istripu kopuru handiena duten enpresetan. Arazo horrek Nafarroako sektore asko ukitzen ditu eta hala agertzen da 2023ko lehentasunezko EJSNren zerrendan, lan-istripuen eta pertsona kopuruen indizea izanik >P75. NOPLOk emandako zerrenda estatistiko horrek ezarri behar du

lehentasunaren erreferentzia. Beraz, lehentasunerako irizpide hauek ezarri ditugu:

a) Enpresetatik % 50, gutxienez, izanen dira Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak 2023an lehentasunezko gisa ezarritako lehen 10 EJSNetako batekoak.

b) Lehentasunezko gisa jarritako EJSN bakar batek ere ez du bilduko enpresetatik % 50 baino gehiago.

Irizpide horiek oinarri arautzaileetan sartu dira, exekuziorako irizpide gisa, hau da, behin laguntza emanda nahitaez bete beharrekoak izanen dira. Era horretan ziurtatzen dugu proiektuetan sartuko direla; bestela, baremazio positiboarekin emateko irizpide gisa sartuta soilik, bakarrik konputatuko dira ematerakoan.

Honela, deialdiak betebeharraren zuzenagoa sortuko luke lehentasun handiko sektoreetan, istripu kopuru handienak duten horietan era zeharkakoan, enpresa txikiagoetara eta sektore ezberdinetara iritsita, kontuan hartuz 6 langile baino gutxiagoko enpresen ordezkartza sindikalaren eza.

Irizpide horietaz gain oinarri arautzaile berriek berriketa batzuk dakartzate, esaterako, lurralde-

banaketarako irizpidea, halako moduz non neurria lurralde osoan era orekatuan erabiliko den.

Enpresen % 40, gutxienez ere, Iruñerrikan kanpo egon beharko dira. Nafarroako Enpresen Behatokiak (<https://observatorioempresarial.navarra.es/>) dituen datuekin bat.

Deialdiaren beste berriketa bat da 2024an exekuzio epea 6 hilabetekoa izanen dela, 2024ko abendura arte, deialdiaren denbora-muga urte naturala izan dadin; halaber denbora horretan lehenagoko deialdien jarraipena eginen litzateke, agertoki berria eta 2025ean dituen emaitzak aztertzeko, helburua izanik prebentzioko jarduketak hobetzen jarraitzea eta deialdi berri bat diseinatzea 2025-2028 aldirako Nafarroako Enplegu Planaren esparruan.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko uztailaren 5ean

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Severiano Txoperena Matxikote jaunak foru parlamentari izaerari uko egitea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko abuztuaren 6an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Foru parlamentari Severiano Txoperena Matxikote jaunak foru parlamentari izaerari uko egitea aldera aurkeztu duen idazkia dela-eta, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Jasotzat ematea Severiano Txoperena Matxikote jaunak aurkeztutako idazkia, zeinaren bidez uko egiten baitio foru parlamentari izaerari – izaera hori apirilaren 4ko 3/2023 Foru Dekretua-

ren bidez deituriko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan lortu zuen (68. zenbakiko NAO, 2023ko apirilaren 4koa), Euskal Herria Bildu alderdi-federazioaren hautagaitzaren barruan– eta eskatzen baitu egin beharreko izapideak egin daitezzen Txoperena Matxikote jaunaren tokia zerrendako hurrengo hautagaiak bete dezan.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko abuztuaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Oihan Mendo Goñi jauna EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioan sartzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko abuztuaren 7an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Foru parlamentari Oihan Mendo Goñi jaunak idazki bat aurkeztu du 2024ko abuztuaren 6an, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioan sartu dela adierazteko.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 35.1. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Jakintzat ematea Oihan Mendo Goñi jauna EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioan sartu izana.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko abuztuaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionario eta kontratadunek 2024an jasoko dituzten ordainsariak eguneratzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko abuztuaren 6an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak, indarrean dagoen araudiari jarraituz, txosten bat egin du, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionario eta kontratadunek 2024an jasoko dituzten ordainsariak eguneratzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluan eta Legebiltzarreko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Maila bakoitzak izanen duen hasierako soldata onestea. Honako hauek izanen dira zenbatekoak 2024an:

Maila	Urteko zenbatekoa
A	30.247,00 euro
B	25.445,84 euro
C	21.108,36 euro
D	18.383,54 euro
E	16.170,42 euro

2. Ezartzea ezen, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, Nafarroako Parlamentuko langileen ordainsariak gehikuntza izanen dutela; hain zuzen ere, Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat 2024rako ezartzen duen gehieneko gehikuntza globalaren zenbatekoan.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko abuztuaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek 2024. urtean jasoko dituzten ordainsariak eguneratzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko abuztuaren 6an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat egin du Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileek 2024an jasoko dituzten ordainsariak eguneratzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Onestea, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, jarraian zerrendaturiko behin-behineko langileen ordainsari gordinak:

– Lehendakaritzako Kabineteko burua: 60.577,16 euro.

– Lehendakaritzako idazkaria: 45.568,46 euro.

– Mahaiko kideen idazkaria: 36.871,94 euro.

– Talde parlamentarioen laguntzaileak: 36.871,94 euro.

2. Beste kargu batzuen behin-behineko langileei eta kabineteko behin-behineko langileei aplikatzea, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, Mahaiaren 2012ko abenduaren 17ko Erabakiaren bidez zerbitzu-aitorpenari buruz onetsitako irizpideak.

3. Ezartzea ezen, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzura diharduten behin-behineko langileen urteko ordainsari gordinak gehikuntza izanen dutela; hain zuzen ere, Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat 2024rako ezartzen duen gehieneko gehikuntza globalaren zenbatekoan.

4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko abuztuaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

25/24 Ebazpena, uztailaren 29koa, Nafarroako Arartekoak emana, urtebeteko prestakuntza-beka baten deialdirako oinarriak onesten dituenak, Zuzenbideko gradua dutenentzat, Nafarroako Arartekoan aritzeko

Nafarroako Arartekoa erakunde publikoa da, eta arduratzen da herritarren eskubide eta askatasun publikoak babesteaz eta hobetzeaz, eta Nafarroako Administrazio Publikoen jarduera gainbegiratzeaz. Erakundearen iritziz interesgarria da Zuzenbideko unibertsitate-titulua duten pertsonen prestakuntza sustatzea, zuzenean ezagut dezaten –praktikaz, batez ere–, zer jarduera egiten diren erakundeetan. Tutore baten zaintzapean eta haren irizpideei jarraituta, herritarrekiko harremanarekin lotutako eginkizunak beteko dituzte; hark emanen dizkie orientazioa, laguntza eta prestakuntza, eta zuzenduko ditu erakundeetan dauden bitartean.

Horretarako, bidezkozat jo da Zuzenbideko gradua duten pertsonentzako prestakuntza-beka baten deialdirako oinarriak onestea, Nafarroako Arartekoan aritzeko. Deialdiak bete egiten ditu bai oinarri arautzaile hauek bai Nafarroako Arartekoaren araudiak agertzen duena ere.

Horren ondorioz, 2005eko azaroaren 21ean Nafarroako Legebiltzarreko Mahaiak onartutako Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Antolaketaren eta Funtzionamenduaren Araudiak ematen dizkidan eskumenak erabilita, honako hau,

EBAZTEN DUT:

1. Urtebeteko prestakuntza-beka baten deialdia onestea, Zuzenbideko gradua dutenentzat, Nafarroako Arartekoan aritzeko.

Eranskinean agertzen diren oinarriek arautzen dute deialdi hau.

2. Deialdia argitaratzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta instituzioko gune digitalean (www.defensornavarra.es).

Iruñean, 2024ko uztailaren 29an

Nafarroako Arartekoa: Patxi Vera Donazar

ERANSKINA

Urtebeteko prestakuntza-beka baten deialdia, Zuzenbideko gradua dutenentzat, Nafarroako Arartekoan aritzeko. Oinarriak.

1. oinarria. Xedea.

1.1. Deialdiaren xedea da, Zuzenbideko gradua duten pertsonentzako beka bat ematea, lehia-keta bidez, Nafarroako Arartekoan aritzeko.

1.2. Deialdiaren helburua da Zuzenbideko gradua dutenentzat prestakuntza bultzatzea, instituzioan herritarren eskubideak babesteko eta hobetzeko egiten diren jarduerak zuzenean ezagutu ditzaten.

2. oinarria. Iraupena.

2.1. Bekak hamabi hilabete iraungo du, eta aukeratze prozesua bukatzerakoan espero da bere hasiera.

2.2. Beka ezin da luzatu.

3. oinarria. Bekaren zenbatekoa eta ordainketa.

3.1. Bekak 1.050 euroko zenbateko gordina izango du hilean, edo dagokion zati proporzionala, hala behar bada. Bekadunari dagokion Gizarte Segurantzaren kuota deskontatuko zaio. Diru-kopuru horri pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagokion atxikipena egingo zaio, indarra duten arabei jarraikiz hala egin behar baldin bada.

3.2. Bekaren onuraduna Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean sartuta geratuko da, urriaren 24ko 1493/2011 Errege Dekretuan ezarri bezala; dekretu horrek prestakuntza-programetan parte hartzen dutenak Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean nola eta zein baldintzatan sartzen diren arautzen du, Gizarte Segurantzaren sistema eguneratu, egokitu eta modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoa garatuz.

3.3. Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean sartzeko, bertan kide izateko eta/edo alta hartzeko, eta araubide horretatik ateratzeko ere, kontuan hartuko da pertsona onuraduna noiz hasten den prestakuntza-programan eta noiz uzten duen, enpresak Gizarte Segurantzaren inskribatzeko eta langileak kide izateko, alta eta bajak hartzeko eta haien datuak aldatzeko Erregelamendu Orokorrean ezarritako modu, epe eta ondorioekin. Urtarrilaren 26ko 84/1996 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori.

3.4. Onuradunari ematen zaion dirua ez da inolaz ere soldata edo lansaritzat hartuko, laguntza ekonomiko publikotzat baizik.

4. oinarria. Bateriaezintasunak.

Prestakuntza-beka bateraezina izango da Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioak emandako bekekin, bai eta beste administrazio, instituzio edo entitate publiko zein pribatu batzuek edo partikularrek emandako bekekin ere, instituzioak aurkakoa adierazi ezean.

5. oinarria. Izangaiek bete behar dituzten baldintzak.

5.1. Dokumentazioa aurkezteko epea bukatzen den egunean baldintza guzti hauek betetzen dituzten pertsona fisikoak soilik izan daitezke onuradunak:

a) Adinez nagusia izatea.

b) Espainiako nazionalitatea izatea edo Europar Batasuneko estaturen batekoa edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzen duen estaturen batekoa izatea. Nolanahi ere, Espainiako nazionalitatea ez duenak gaztelaniaz behar adina badakiela frogatu beharko du.

c) Zuzenbideko graduaren unibertsitate-titulu ofiziala izatea, Espainiako agintariek emana edo homologatua, eta deialdi hau argitaratu baino lehenagoko hiru urtean lortu izana. Zuzenbideko graduaren baliokidea izango da Zuzenbideko eta beste zientzietako gradu bikoitza.

d) Bizitokia Nafarroan izatea, deialdia argitaratu baino urte bat lehenagotik gutxienez.

e) Jarduteko gaitasun osoa izatea, eta ez izatea bekaren xede den prestakuntza-jardueran aritzea galaraz diezaiokeen desgaitasun fisikorik edo gaixotasunik.

f) Zerga guztien ordainketak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela frogatzea, eta ez kobratzea administrazio edo entitate publiko edo pribatu batetik helburu bera duen beste edozein laguntza publiko bateraezinek.

5.2. Baldintza horiek guztiak bekaldi osoan bete beharko dira.

6. oinarria. Baloratzeko baremoa.

Baremo honi jarraituz baloratuko dira eskabi-deak:

a) Ikasketa-espeditentea: Gehienez ere 10 puntu.

Espeditentearen batez besteko nota baloratuko da dagokion Unibertsitateak emandako puntuazioaren arabera.

Ez dira baloratuko 6 puntutik beherako batez bestekoa duten espedienteak (10 puntuko eskalan).

b) Bestelako unibertsitate-titulu ofizialak:

Zuzenbideko gradua ez den bestelako unibertsitate-titulu ofizialik izanez gero, Espainiako agintariak emana edo homologatua, puntu bat emango da titulu bakoitzeko.

Unibertsitateko gradu titulua ez den bestelako titulua, dela masterra, dela doktoretza edo besteren bat 0,5 puntu titulu bakoitzeko.

c) Zuzenbide publikoari lotutako ikasgai edo arlo hauetan lortutako kalifikazioek: gehienez ere 10 puntu.

- Konstituzio-zuzenbidea.
- Zuzenbidearen iturriak.
- Oinarrizko eskubideak.
- Estatuaren antolaketa.
- Administrazio-zuzenbidea, zati orokorra.
- Administrazio-zuzenbidea, zati berezia.
- Nafarroako zuzenbide publikoa.

d) Hizkuntzen ezagutza.

Ikastetxe publikoek emandako ziurtagiriak edo titulu ofizialak soilik baloratuko dira.

Hizkuntza eskola ofizial batek emandako gaitasun-agiria edo titulua edo ofizialki baliokidea den titulua edukiz gero, gehienez ere 1 puntu hizkuntza bakoitzarengatik; baremo honen arabera:

HEOko maila	Ziurtagiria	Puntuak
1. eta 2. maila	A1 eta A2	0
3. maila	B1	0,40
4. maila	B2	0,70
5. maila	C1	1,00

Hizkuntza eskola ofizialetatik kanpoko ikastetxeetan egindako ikasketen kasuan, berariaz aipatu beharko da egindako ikasketak zein ziurtagiriaren baliokideak diren, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren gomendioei jarraikiz.

e) Elkarrizketa pertsonala: gehienez ere 10 puntu.

Puntu gehien lortu dituzten hiru pertsonaiei egingo zaie elkarrizketa. Ebaluazio Batzordeko kide batek egingo ditu elkarrizketak.

Baloraziorako honako hauek hartuko dira kontuan: motibazioa; ekimena; erantzunen argitasuna

eta ordena; gaiak beren artean lotzeko gaitasuna; jendea hartzen jarduteko, talde-lanerako eta gizarte-harremanetarako gaitasunak; eta beste gaitasun sozial edo intelektual batzuk.

Beka eskatzaileei posta elektronikoz egingo zaie dei, gutxienez ere 48 ordu lehenago. Elkarrizketa egitea nahitaezkoa da, eta hautapen prozesutik baztertu egingo da agertzen ez dena; hala-koetan, puntuazio handiena duen hurrengoari deituko zaio.

7. oinarria. Eskaerak.

7.1. Interesdunek dagokion eskabidea toki hauetako batean aurkeztu beharko dute:

a) Nafarroako Arartekoko Erregistroan. Emilio Arrieta kalea 12, behea, 31002, Iruñea.

b) Posta elektronikoz, dokumentu guztiak info@defensornavarra.es helbidera bidalita, 7.3 puntuan ezartzen dena kontuan hartuz.

c) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako tokiren batean.

7.2. Deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hogeit egun naturaleko epean aurkeztu beharko da eskabidea.

7.3. Eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztuko dira:

a) Eskabidea, eranskineko ereduaren arabera-koa bete.

b) Eskatzailearen curriculum vitae-a, lortutako merezimendu guztiak zehatz-mehatz jasota.

c) Ikasketa espedientearen ziurtagiria, maila bakoitzeko gai guztien kalifikazioekin, batez beste-ko nota barne, zein deialditan gainditu zituen espresuki aipatzen duena.

d) Alegatzen dituen merezimenduak frogatzeko agiriak.

e) Hizkuntzak meritu gisa baloratzeko: hizkuntza ezagutzaren dutela bermatzen duten ziurtagiriak edo titulu-egiaztagiria.

7.4. Epean aurkeztutako eskaerak aurreko zenbakian finkatutako dokumentuak ez baditu, interesdunari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean zuzendu dezala, eta adieraziko zaio, zuzendu ezean, eskaerari uko egiten diola ondorioztatuko dela eta espediente artxibatuko dela, eta azken gorabehera hori jakinaraziko zaiola.

Deialdian ezarritako merezimenduei buruzko agiriak aurkezten ez badira, ezingo da zuzenketa-rik egin.

7.5. Eskatzaileek beren helbide elektronikoa emango dute, behar diren jakinarazpenak jasotzeko.

7.6. Prestakuntza-beka jasotzeko eskaera aurkezteak berarekin dakar eskatzaileak deialdiaren oinarriak onartzea.

8. oinarria. Ebaluazio Batzordea.

8.1. Ebaluazio Batzordea arduratuko da betebeharrak egiaztatzeaz eta bekak eskatzen dituztenek alegatutako merezimenduak ebaluatzeaz.

8.2. Ebaluazio Batzordeak aurkezten diren eskaerak aztertu eta baloratuko ditu, eta izangaien zerrenda bat egingo du, lortutako puntuazioaren arabera.

8.3. Ebaluazio Batzordea hauek osatuko dute:

- Instituzioko idazkari nagusiak.
- Nafarroako Ararteko aholkulari batek (idazkari-lanak egiten dituenak).
- Instituzioko kudeaketa-teknikariak.

Aipatutako pertsonetako bat ez badago, Nafarroako Arartekoak erakundeko aholkulari bat izenda dezake.

9. oinarria. Hautaketaren ondorengo prozedura.

9.1. Ebaluazio Batzordeak bekarako hautatu duen pertsonak dokumentazio hau aurkeztu beharko du, hautaketa jakinarazi eta bost egun naturaleko epean:

- a) Nortasun Agiri Nazionalaren edo baliokidea den identifikazio agiriaren fotokopia.
- b) Zuzenbideko graduaren titularen fotokopia.
- c) Nafarroako herriren bateko erroldatze ziuirgiri eguneratua, antzinasuna zehazten duena.
- d) Jarduteko gaitasun osoa duela, eta bekaren xede den prestakuntza-jardueran aritzea galaraz diezaiokeen desgaitasun fisikorik edo gaixotasunik ez duela adierazten duen dokumentu bat. Eredu bat emango da baldintza hori egiaztatzeko.
- e) Zerga guztien ordainketak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela frogatzea, eta ez kobratzea administrazio edo entitate publiko edo pribatu batetik helburu bera duen beste edozein laguntza publiko bateraezinek. Eredu bat emango da baldintza hori egiaztatzeko.

9.2. Beka Nafarroako Arartekoaren ebazpen baten bidez emango da, eta ebazpen hori institu-

zioaren gune digitalean argitaratuko da: www.defensornavarra.es.

Hautaketa-prozesuan parte hartzen dutenei idatziz emango zaie emaitzaren berri, eta lortu duten guztizko puntuazioa adieraziko zaie; nolahi ere, espedienteko informazioa kontsultatzeko eskubidea izango dute.

9.3. Eskatutako dokumentazioa ez bada aurkezten, edota aurkezten dena ez da eskatutakoa, interesdunak uko egin duela ulertuko da, eta zentzu horretan komunikatuko zaio.

9.4. Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta hiru hilabeteko epean berriazko ebazpenik jakinarazten ez bada, ukatu egin direla ulertuko da.

10. oinarria. Deialdia hutsik geratzen bada.

Hautatze prozesu honen arabera deialdia hutsik geratzen bada, Nafarroako Arartekoko instituzioak aurreko deialdira aurkeztu ziren pertsonen deizake, betiere deialdi honetan eskatutako baldintzak betetzen badituzte eta jasotako puntuazioa kontuan hartuta, edonola ere eta hautaketa egokia lortzeko beharrezko neurriak hartu ahal ditu.

11. oinarria. Tutoretza.

11.1. Beken onuradunaren jarduerak aholkulari batek gainbegiratu ditu eta aholkulari horren tutoretzapean egongo da onuraduna.

11.2. Tutoreak orientazioa, laguntza, prestakuntza hobea eta gidaritza emango dizkio bekadunari erakundean dagoen bitartean. Prestakuntza bideratu eta gainbegiratzeaz arduratuko da, orientabideak, gomendioak, iradokizunak eta, hala badagokio, zuzenketa oinarrituak ezarri, bekadunak prestakuntza hobea izan dadin. Bekadunen betebeharrak orokorrak eta espezifikoak betetzen direla gainbegiratu du.

11.3. Tutoreak prestakuntza-plan orientagarri bat emango dio bekaren onuradunari, bertan nahitaezkozat jotzen diren ebaluazioak alde batera utzi gabe.

12. oinarria. Onuradunaren betebeharrak.

Betebehar hauek ditu bekaren onuradunak:

- a) Bekaren xedeko prestakuntza-jarduera betetzea.
- b) Betebeharrak eta baldintzak betetzen dituela frogatzea, bai eta, orobat, beka jasotzeko arrazoi izan diren jarduerak egin dituela eta helburuak bete direla ere.
- c) Emandako bekaren gainean egin ditzaketen egiaztapen-lan guztietan parte hartzea.

d) Xede berarekin eskatu edo jaso dituen beselako beka edo diru-laguntzen berri ematea Nafarroako Arartekoari.

e) Nafarroako Arartekoari komunikatzea emandako bekari espresuki uko egiten diola, jarduerak utzi baino hamar egun natural lehenago gutxienez.

f) Bekaren zuzeneko ondorio diren jarduera eta argitalpen guztietan bekadun gisa aritu dela adieraztea.

g) Bekaldiak irauten duen bitartean eta ondoren, ezagutzen duen isilpeko informazio tekniko edo administratiboaren gainean sekretua eta konfidentzialtasuna gordetzea.

h) Zein erakundetan jarduten duen, bertako barne edo funtzionamendu araubidea betetzea.

i) Nafarroako Ogasun Publikoarekin dituen betebeharrak egunean dituela egiaztatzea. Eman-go den eredian, Nafarroako Arartekoari baimena ematea egongo da, onuradunak zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen dituen datuak kontsultatzeko, jarduerak hasten diren unean.

j) Nafarroako Arartekoaren datu pertsonalak babesteko legezko erregimena onartzea.

13. oinarria. Prestakuntza-jardueraren hasiera eta uko egitea.

13.1. Onuradunak adierazten den egunean hasi beharko du lanean instituzioan. Adierazitako egunean onuraduna ez bada jardunean hasten, Nafarroako Arartekoari horren berri eman gabe, edo onuradunak lanean ez hasteko arrazoiak adierazi eta instituzioak ez badu ikusten ezinbesteko arrazoiak direla edo ez dagoela behar bezala justifikatuta, bekari behin betiko uko egiten diola ulertuko da.

13.2. Bekari uko eginez gero, Nafarroako Arartekoari horren berri eman beharko zaio. Beka erabiltzen hasi ondoren, bekari uko eginez gero, Nafarroako Arartekoari berariazko ukoaren berri eman beharko zaio, jarduera utzi baino hamar egun natural lehenago gutxienez.

13.3. Eskuratutako bekari edozein arrazoirengatik uko eginez gero, posible izango da zerrendan hurrengo dagoenari ematea, deusetan galarazi gabe onuradunak uko egin arte dituen betebeharrak eta 10. oinarrian ezarritakoa kon-tuan hartuz.

14. oinarria. Prestakuntza-bekaren gauzatzea.

Prestakuntza-beka gauzatzeko, onuraduna Nafarroako Arartekoaren egoitzan egon beharko da asteen 30 orduz. Era berean, prestakuntza-

premiekin eskatzen dituzten joan-etorriak egingo dituzte.

Bekadunak 27 egun baliodun izango ditu atse-den hartzeko.

15. oinarria. Jabetza intelektuala.

Bekarako hautatu den pertsonak jabetza intelektualaren gainean dituen eskubideak, Nafarroako Ararteko bekaldian egindako jardueraren ondorioz eskuratzen direnak, eskubide horiek erregulatzen dituzten Estatuko arauetan ezarritakoari jarraikiz arautuko dira. Horri dagokionez, instituzioak ez dio uko egiten agirien, azterlanen, ikerlanen, lanen, eskubideen, emaitza zientifikoen eta izan litezkeen asmakuntzen gainean legokiokeen jabetzari.

16. oinarria. Lan- edo administrazio-harremanik eza.

16.1. Beka erabiltzea eta bekaduna izatea ez da zerbitzuak ematea, eta egoera horrek ez dakar berarekin lan-harremanik, lan administratiborik edo lan estatutupekorik sortzea Nafarroako Arartekoaren instituzioarekin, ez eta antzeko eskubiderik lortzea ere. Instituzioak ez du konpromisorik hartuko beka bukatutakoan bekadunak bere plantillan sartzeko.

16.2. Prestakuntza bekadunei agintzen zaizkien lan edo jarduerak Nafarroako Ararteko langileek gainbegiratuko dituzte eta langile horiek izango dira lan horien erantzuleak. Bekadunek ezingo dituzte Nafarroako Ararteko langileen eginkizunak bete edo beraientzat hartu, ez eta hirugarrenen aurrean instituzioko kide, ordezkari edo agente gisa agertu ere.

17. oinarria. Kalte-ordainak jasotzeko eskubidea.

Bekadunak, prestakuntza egiten ari deneko Nafarroako Arartekorekin duen harreman juridikoa ezertan aldatu gabe, eskubidea izango du zerbitzuagatik eta bidaiengatik izango duen gastuengatik langileei dagozkien ordain berberak jasotzeko.

18. oinarria. Bekaren ordainketa itzultzea edo bertan behera uztea.

18.1. Nafarroako Arartekoak eskubidea izango du onuradunari eskatzeko jaso duen zenbateko osoa edo zati bat itzultzeko, edo zenbateko horiek bertan behera uzteko, kasu hauetan:

a) Beka eskatzeko eta lortzeko baldintzak faltsutu baditu edo beka ez ematea ondorioztatuko luketen baldintzak ezkutatu baditu.

b) Bekadunak bere gain hartutako betebeharrak eta eginkizunak ez betetzea, jarduerak egiten

ardurarik ez jartzea, errendimendu eta aprobe-txamendu eskasa izatea eta lanak kalitate gabe-koak izatea.

c) Prestakuntza-beka emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzea, aldez aurretik baimena lortu gabe. Horretaz gain, aldi berean jasotzea beka horrekin bateratu ezin den beste beka edo dirulaguntzaren bat edo bateragarria kontsidera-tzen ez den lan edo aktibitatearen bat eginez gero.

d) Instituzioak egindako bekaren inguruko egiaztatze-jardueretan parte ez hartzea.

18.2. Nafarroako Arartekoak erabakiko du, ebazpen baten bidez, beka itzuli behar den edo bertan behera geratuko den. Horretarako, aldez aurretik espediente bat egingo da, txostenekin, frogekin eta onuradunaren alegazioekin.

18.3. Ebazpena interesdunari jakinaraziko zaio, tokia, modua eta diru-sartzea egiteko edo beka eteteko epea adierazita.

19. oinarria. Prestakuntzaren egiaztatzea.

Prestakuntza-beka amaitzean, Nafarroako Arartekoak agiri publiko bat egingen du, onuradu-nak egindako prestakuntza egiaztatzeko. Beka osorik egin ez bada, onuradunak egindako jardue-

raren arabera baloratuko du erakundeak doku-mentu hau eman izana.

20. oinarria. Aplikatu beharreko legeria.

Oinarri hauen interpretazioen eta aplikazioen ondorioz ager daitezkeen gorabehera guztiak Nafarroako Arartekoak ebatziko ditu, oinarrietan ezarritakoaren eta aplikatu behar den araudiaren arabera.

21. oinarria. Errekurtsoak.

Errekurtso hauek jar daitezke deialdiko oina-rrien eta oinarriak betetzeko ekintzen aurka:

a) Aukerako berraztertze errekurtsoa jar-tzeko aukera izango dute Nafarroako Ararteko-aren aurrean, ebazpena jakinarazi eta, hurrengo egunetik hasita, hilabeteko epean, urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera (Administrazio Publiko-en Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa).

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, ebazpena jakinarazten den ondorengo egunetik hasita eta bi hilabeteko epean, oinarri hartuta uztailaren 13ko 29/1998 Legea (administrazioarekiko auzien juris-dikzioa arautzen duena).

**ZUZENBIDEAN GRADUATUTAKO PERTSONENTZAT NAFARROAKO ARARTEKOAN ARITZEKO
PRESTAKUNTZA BEKA BAT ESKATZEKO ESKAERA ORRIA**

_____ jaun/andreak, _____ NAN zenbakia duenak,
_____ helbidean
bizi denak (zehaztu kalea, plaza, posta-kodea eta herria), eta prozedura honi dagozkion jakinarazpenetarako
_____ telefonoa eta _____ posta
elektronikoa dituenak,

ESKATZEN DU:

Duela gutxi deitutako Nafarroako Arartekoaren erakundearen aritzeko Zuzenbidean graduatutako pertsonentzako prestakuntza-beka bat lortzeko prozeduran parte hartzea.

ADIERAZTEN DU:

Deialdiko 5. oinarrian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela (adin nagusikoa izatea, nazionalitatea, Zuzenbideko gradu-titulua, Nafarroan bizitzea, zereginak betetzeko gaitasuna eta zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea).

HORRETARAKO, deialdiko 7.3 oinarria betez, hark eskatutako dokumentu hauek aurkezten ditu: a) eskaera-orria, beteta eta sinatuta, b) curriculum vitae-a eta lortutako merezimenduen zerrenda, c) espediente akademikoaren egiaztagiria, d) aipatutako merezimenduak egiaztatzeko dokumentuak eta e) beharrezkoa izanez gero, hizkuntzen egiaztapen-titulua.

JAKINARAZTEN DU: Onartzen dituela deialdiko oinarriak eta prestakuntza-beka honen kudeaketari lotuta bere datu pertsonalak tratatzeko baimena ematen duela.

_____ (e)an, _____ ko _____ (a)ren _____ (e)(a)n.

Eskatzailearen sinadura.

(Deialdia bizkortzeko, arren, dokumentuak posta elektronikoko bidez info@defensornavarra.es edo presentzialki Emilio Arrieta 12, behea, Iruñea helbidean aurkezteko eskatzen da)

NAFARROAKO ARARTEKO JAUNA

DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

Datu pertsonalen babesarekin lotutako alderdi guztietan, Nafarroako Arartekoak 2016ko apirilaren 27ko Europako Araudiarekin, uztailearen 3ko 4/2000 Foru Legearekin eta bere jarduerari aplikagarri zaizkion gainerako legeekin bat etorri jarduten du.

1. Arduraduna: Nafarroako Arartekoa. **2. Xedea:** kexak, kontsultak edo erakunde honen eskumenen esparruan sartzen den beste edozein jardura artatzea. **3. Legitimazioa:** interes publikorako eginkizuna betetzea. 4/2000 Foru Legea, uztailearen 3koa, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzkoa. **4. Eskubideak:** atzipena, zuzenketa, ezabapena, tratamenduaren mugaketa, aurkaratzea, eramangarritasuna eta onespenean atzera egitea, legez ezarritako baldintzetan. **5. Informazio osagarria:** hemen kontsulta daiteke <https://www.defensornavarra.es/eu/datuen-babesa>.

Eskubideak erabiltzeari dagokionez, interesdunek hona jo dezakete bere nortasuna egiaztatzen duen agiria erantsiz: Nafarroako Arartekoa, Emilio Arrieta kalea 12, etxabea, Iruñea (posta-kodea: 31002), telefono zk.: 948 203571, helbide elektronikoa: info@defensornavarra.es.

